

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPEN¹

Araua: 2009/15/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko apirilaren 23koa, itsasontzien ikuskaritza eta azterketetan jarduten duten erakundeetarako eta itsas administrazioen dagozkien jardueretarako erregela eta arau komunei buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2009/15/CE DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, sobre reglas y normas comunes para las organizaciones de inspección y reconocimiento de buques y para las actividades correspondientes de las administraciones marítimas» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 131/47, 2009/5/28koa)

2009/15/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 131, 2009/5/28koa)

ZUZENTARAUAK

2009/15/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2009ko apirilaren 23koa

Itsasontzien ikuskaritza eta azterketetan jarduten duten erakundeetarako eta itsas administrazioen dagozkien jardueretarako erregela eta arau komunei buruzkoa

(bertsio bategina)

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN
KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 80. artikuluko 2. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾.

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedura bete dute, Adiskidetzeko Komiteak 2009ko otsailaren 3an onarturiko testu bateratua ⁽³⁾ aztertu dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Kontseiluaren 94/57/EE Zuzentaraua ⁽⁴⁾, 1994ko abenduaren 22koa, itsasontziak ikuskatu eta peritatzen jarduten duten erakundeetarako eta itsas administrazioen dagozkien jardueretarako arau eta estandar komunei buruzkoa, hainbatetan aldatu da, funtsean aldatu ere. Beste aldaketa batzuk ere sartu behar direnez, egokia da zuzentaraua bategitea, argiagoa izan dadin.

¹ C 318 EO, 2006.12.23koa, 195. or.

² C 229 EO, 2006.9.22koa, 38. or.

³ Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko apirilaren 25ekoa (C 74 E EO, 2008.03.20koa, 632. or.).
Kontseiluaren Jarrera Bateratua (C 190 E EO, 2008.7.29koa, 1. or.), Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko irailaren 24koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea), Kontseiluaren 2009ko martxoaren 11ko Erabakia (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

⁴ L 319 EO, 1994.12.12koa, 20. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (2) 94/57/EE Zuzentarauko xedapenen ezaugarriak ikusita, egokia da xedapenak Erkidegoko bi egintza juridikotan bategitea; hain zuzen ere, Zuzentaru batean eta Erregelamendu batean.
- (3) Kontseiluak 1993ko ekainaren 8an, itsas segurtasunari buruzko politika erkideari buruz emandako Ebazpenean, helburu bat zehaztu zuen: akatsak dituzten itsasontziak Erkidegoko uretatik ateratzea. Eta lehentasun bat ezarri zuen: nazioarteko arauen aplikazio eraginkorra eta uniformeak bermatzen duen Erkidegoko jardunari lehentasuna ematea. Horretarako, arau komunak egingo dira ontziak sailkatzeko sozietateentzat.
- (4) Itsas segurtasunak eta itsasoko kutsaduraren prebentzioak benetan hobera egin dezakete baldin eta nazioarteko hitzarmen, kode eta ebazpenak zorrotz aplikatzen badira, aldi berean zerbitzu-emateen askatasunaren helburua sustatzen dela.
- (5) Banderaren eta portuaren estatuaren erantzukizuna da kontrolatzea itsasontziek itsas segurtasunaren eta itsasoko kutsaduraren prebentzioaren alorreko nazioarteko araudi uniformeak betetzen dutela.
- (6) Estatu kideen ardura da zenbait hitzarmenetan ezarritako segurtasun-egiaztagiriak ematea eta kutsaduraren kontrola eta hitzarmen horiek ezartzea. Hona hemen hitzarmen horiek: Gizakien bizitzaren segurtasunerako nazioarteko hitzarmena, 1974ko azaroaren 1ekoa (SOLAS 74); Zama-larroen nazioarteko hitzarmena, 1966ko apirilaren 5ekoa; eta itsasontziek sortutako kutsadura prebenitzeko nazioarteko hitzarmena, 1973ko azaroaren 2koa (Marpol).
- (7) Hitzarmen horiei jarraituz, betebeharrak horiek betetzearen egiaztagiria emateko onetsiriko erakundeei eman diezaiekete baimena —neurri desberdinean—, eta segurtasunerako eta kutsaduraren prebentzioko ziurtagiriak ematea haiei eskuordetu diezaiekete.
- (8) Munduan, Nazioarteko Itsas Erakundeko (IMO) alde kontratugileek onetsiriko erakunde askok ez dute bermatzen araudia behar bezala betetzen dela, eta ez daukate nahikoa fidagarritasun estatuko administrazioen izenean jarduten dutenean; izan ere, ez dute ez egitura ez esperientzia fidagarri eta egokirik betebeharrak profesionaltasun handiz betetzeko.
- (9) SOLAS 74 Hitzarmeneko, II-1 kapituluko, A-1 ataleko, 3-1 arauak hau ezartzen du: estatu kideen erantzukizuna da bermatzea beren bandera duten itsasontzien diseinuan, egitean eta mantentze-lanetan bete egiten direla administrazioak onetsiriko erakundeen preskripzioak, egiturari, mekanikari eta elektrizitateari dagozkionak. Erakunde horiek, beraz, itsasontziaren diseinu, egite, mantentze-lan eta ikuskapenetarako arauak egiten eta ezartzen dituzte, eta eskumena dute, bai banderako estatuen izenean itsasontziak ikuskatzeko, bai eta ziurtatzeko itsasontzi horiek betetzen dituztela ziurtagiria izateko nazioarteko betekizunak. Eginkizun hori egoki bete ahal izateko, guztiz independenteak izan behar dute, gaitasun tekniko oso espezializatua eta kalitatearen kudeaketa zorrotza.
- (10) Itsasontziak ikuskatzeko eta aztertzeko erakundeek eginkizun garrantzitsua dute itsas segurtasunaren alorreko Erkidegoko legedian.
- (11) Ikuskatzeko eta aztertzeko erakundeek aukera eduki behar dute zerbitzuak Erkidego osoan eskaintzeko eta elkarrekin lehiatzeko, eta, aldi berean, segurtasun-maila eta ingurumenaren babesaren maila berbera eman behar dute. Hori dela eta, haien jarduerarako beharrezko diren arau profesionalak modu uniformeaz ezarri eta aplikatu behar dira Erkidego osoan.
- (12) Kargaontzirako segurtasun erradioelektrikoko ziurtagiria ematearen ardura ezagutza tekniko eta langile gaitu nahikoa dituzten erakunde pribatuei eman dakieke.
- (13) Estatu kideek erabaki dezakete onetsiriko zenbat erakunde onartu. Horretarako, kontuan hartuko dute zer behar duten, eta arrazoi objektibo eta gardenetan oinarrituko dira. Batzordearen kontrolpean jarriko dira, eta horrek Komite bidez gauzatu du kontrola.
- (14) Zuzentaru honek Erkidegoan zerbitzuak askatasunez ematea bermatu behar duenez, Erkidegoak akordioak lortu behar ditu onetsiriko erakundeak dauden hirugarren herrialdeekin, Erkidegoko onetsiriko erakundeekiko tratu-berdintasuna izan dezaten.
- (15) Ezinbestekoa da estatuko administrazioek zorrotz parte hartzea itsasontzien zaintzan eta dagozkien ziurtagiriak ematerakoan, bermatzeko guztiz betetzen dutela segurtasuneko nazioarteko araudia. Eta horrek horrela izan behar du betebeharrak ofizial horiek betetzeko ardura bere administrazioak ez diren onetsiriko erakundeei ematen dienean ere. Egokia da, beraz, harreman estua izatea administrazioek eta haiek baimendutako onetsiriko erakundeek. Horretarako, zenbaitetan, beharrezkoa izango da onetsiriko erakundeek tokiko ordezkaritza izatea ordezkari moduan jardun behar duten estatuaren lurraldean.
- (16) Onetsiriko erakunde batek, haren ikuskatzaileek edo teknikariek administrazioaren izenean egoki diren ziurtagiriak ematen dituztenean, estatu kideek aintzat hartu behar dute egokia litzatekeela eskuordetutako jarduera horietarako berme juridiko proportzionatuak izatea, bai eta babes juridikozionala ere, defentsa-egintza egokiak barne, immunitatea ezik. Izan ere, immunitatea estatu kideek soilik argudia dezaketen prerrogatiba da, subiranotasunari

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

dagokion eskubidea baita, eta, horrenbestez, ezin da eskuordetu.

- (17) Estatu kideen izenean jarduten duten onetsiriko erakundeen finantza-erantzukizuneko erregimenak desberdinak izateak Zuzentarau hau egoki aplikatzea eragotziko luke. Horrelako arazorik ez izateko, egokia da Erkidegoan erantzukizunaren nolabaiteko harmonizazio-mailaren bat ezartzea; alegia, harmonizatu egin behar da onetsiriko erakunde batek eragindako edozein ezbeharren erantzukizuna, epaitegi batek epai bidez ezarritakoa, zein auzi baten arbitrajeko ebazpenaz ezarritakoa.
- (18) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki ⁽¹⁾.
- (19) Egokia da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea zuzentarau hau alda dezan, nazioarteko hitzarmenetan, protokoloetan, kodeetan eta alor horretako ebazpenetan etorkizunean egiten diren aldaketak bertan sartzeko. Neurri horiek orokorrak eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.
- (20) Dena den, estatu kideek aukera izan behar dute onetsiriko erakunde bati baimena eten edo kentzeko; baina erabakia Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinarazi behar die, arrazoi eta guzti.
- (21) Estatu kideek, aldian-aldian, bere izenean jarduten duten onetsiriko erakundeen jarduera ebaluatu behar dute, eta Batzordeari eta gainerako estatu kideei jarduera horri buruzko informazio zehatza eman behar diete.
- (22) Estatu kideek, portu-agintaritzaren diren heinean, Erkidegoko uren segurtasuna hobetu eta kutsadura prebenitzeko betebeharra dute. Horretarako, lehentasuneko ikuskaritza egin behar diete irizpide komunak betetzen ez dituzten erakundeen ziurtagiriak dituzten itsasontziei, bermatzeko hirugarren herrialde bateko bandera duten itsasontziek ez dutela besteek baino tratua hobea.
- (23) Gaur egun, kroskoari, makinei eta instalazio elektrikoari eta kontrol-instalazioari dagokienez, ez dago ontziak egiteko fasean edo ontziaren balio-bizitza osoan itsasontzi guzti-guztiek bete behar duten nazioarteko arau uniformerik. Arau horiek bi modutan ezar daitezke: onetsiriko erakundeen arauari jarraituz, edo administrazio nazionalen erabaki beharreko arau baliokideak onartuz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1998ko ekainaren 22ko

98/34/EE Zuzentarauari jarraituz ⁽²⁾. Zuzentarau horrek informazio-prozedura bat ezartzen du arau eta erregelamendu teknikoan alorrean eta informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko arauetan.

- (24) Kontuan hartuta Zuzentarau honen helburua —alegia, zenbait neurri zehaztea estatu kideek kontuan izateko Erkidegoan ontzien ikuskapena, azterketa eta ziurtagia egiteko ardura duten erakundeekin dituzten harremanetan— estatu kideek ezin dutela bere kasa behar bezala lortu, eta ekintzaren zabalatasuna ikusita, helburua Erkidegoan hobeto lor daitekeenez, Erkidegoak horretarako neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako heinekotasun-printzipioaren indarrez, Zuzentarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.
- (25) Zuzentarau hau estatuko legedietan barneratzeko beharra mugatua da: 94/57/EE Zuzentarauarekiko aldaketa nabarmena dakarten xedapenak bakarrik barneratu beharko dira. Aldatu gabeko xedapenen transposizioa egiteko beharra Zuzentarau horrek zehazten du.
- (26) Zuzentarau honek ez die eragingo I. eranskinaren B zatian adierazitako zuzentarauak estatuko zuzenbidean jasotzeko epeei buruz estatu kideei ezartzen zaizkien betebeharrak.

¹ L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or

² L 204 EO, 1998.7.21ekoa, 37. or.

- (27) Instituzio arteko «Lege hobeak egitea» Akordioaren 34. puntuan arautzen denari jarraiki ⁽¹⁾, estatu kide orok nork bere taula egin dezan sustatu nahi da, bai eta horiek argitara ditzaten ere, zuzentarau honek eta transposizio-neurriak bat nola datozen erakusteko ahal den neurrian, hori onuragarria izango baita bai estatuentzat, bai Erkidegoarentzat.
- (28) Itsasontzien ikuskapena eta azterketa egiten duten erakundeek bete beharreko neurriak erregelamendu honek ezartzen ditu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko apirilaren 23ko 391/2009/EE Erregelamenduak ⁽²⁾, itsasontzien ikuskapenean eta azterketan jarduten duten erakundeen arau eta erregela komunei buruzkoak (testu bategina).

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Zuzentarau honek ezartzen du zer neurri jarraitu behar dioten estatu kideek ontzien ikuskapena, azterketa eta ziurtapena egiteko ardura duten erakundeekin dituzten harremanetan, itsasoko segurtasunari eta itsas kutsaduraren prebentzioari buruzko nazioarteko hitzarmenak betetzeko, aldi berean zerbitzu-emateen askatasunaren helburua sustatzen dela. Horren barne daude nazioarteko hitzarmenen aplikazio-eremuaren baitako itsasontzien krosko, makina, instalazio elektriko eta kontrol-instalazioetarako segurtasun-betekizunak garatu eta ezartzea.

2. artikulua

Zuzentarau honi dagokionez, definizio hauek hartuko dira oinarri:

- a) «itsasontzia»: Nazioarteko hitzarmenen aplikazio-eremuaren baitako itsasontzi oro.
- b) «Estatu kide bateko bandera duen itsasontzia»: Estatu kide batean erregistratutako itsasontzia, estatu kide horren bandera duena, estatu kide horren legedia betez. Definizio honen barruan ez dauden itsasontziak hirugarren estatu bateko bandera duten itsasontziekin parekatuko dira.
- c) «ikuskapenak eta azterketak»: Nazioarteko hitzarmenei jarraituz, derrigorrezkoak diren ikuskapenak eta peritatzeak.
- d) «nazioarteko hitzarmenak»: Itsasoan giza bizia segurtatzeko nazioarteko hitzarmena, 1974ko azaroaren 1ekoa (SOLAS 74), haren eranskineko XI-2 kapitulua; Karga-marren nazioarteko hitzarmena, 1966ko apirilaren 5ekoa; Itsasontziek sortutako kutsadura prebenitzeko nazioarteko hitzarmena, 1973ko azaroaren 2koa (Marpol); haien protokoloak eta aldaketak, eta haien dagozkien kodeak estatu kide guztietan derrigorrezkoak direnak, bertsio eguneratuan.

¹ C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

² Ikus Egunkari Ofizial honetako 11. orrialdea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

e) «erakundea»: Entitate juridiko bat, haren filialak eta haren mendeko beste edozein entitate, elkarrekin edo beren kasa, Zuzentarau honen aplikazio-eremuan sartzen den jarduera egiten duena.

f) «kontrola»: e) idatz-zatiaren ondorioetarako, eskubide, kontratu edo beste edozein bitarteko, izatezkoak edo zuzenbidezkoak, haiek bakarrik edo elkarrekin, entitate juridiko batengan eragin erabakigarria egiteko ahalmena ematen duena edo aukera ematen duena Zuzentarau honek araututako jarduerak egiteko.

g) «onetsiriko erakundea»: 391/2009/EE Erregelamenduari jarraiki onetsiriko erakundea.

h) «baimena»: Estatu kide batek, onetsiriko erakunde bat akreditatzeko edo bere eskumena haren esku uzteko egiten duen egintza.

i) «derrigorrezko ziurtagiria»: Nazioarteko hitzarmenei jarraituz banderako estatu batek emandako edo haren izenean emandako ziurtagiria.

j) «arauak eta prozedurak»: Onetsiriko erakunde batek ezartzen dituen betekizunak itsasontzien diseinurako, eraikuntzarako, ekipamendurako, mantentze-lanetarako eta kontrolerako.

k) «sailkapen-ziurtagiria»: Onetsiriko erakunde batek ematen duen agiria, egiaztatzen duena itsasontzi bat erabilera edo zerbitzu jakin baterako gai dela, onetsitako erakunde horrek ezarritako eta argitaratutako arauak eta prozedurei jarraiki.

l) «kargaontzirako segurtasun irrati-telefonikoko ziurtagiria»: SOLAS aldatzen duen 1988ko protokoloak ezarritako egiaztapena, Nazioarteko Itsas Erakundeak (IMO) onartutakoa.

3. artikulua

1. Nazioarteko hitzarmenei jarraituz dituzten erantzukizunak eta obligazioak betez, estatu kideek bermatu beharko dute beren administrazio eskudunek ziurtatu dezaketela hitzarmen horietako xedapenak egoki betetzen direla, eta, bereziki, itsasontzien ikuskapenari eta azterketei dagozkienak eta nazioarteko hitzarmenetan ezarritako derrigorrezko ziurtagiriei eta salbuespen-ziurtagiriei dagozkienak. Estatu kideek xedapen hauei jarraituz jardungo dute: IMOren «Banderako estatuei IMOren tresnak sartzen laguntzeko jarraibideak» izeneko A.847(20) Ebazpeneko eranskineko eta gehigarriko egoki diren xedapenei jarraituz.

2. 1. paragrafoan ezarritakoa betetzeko, estatu kide batek erabakitzen badu bere banderako itsasontzietarako:

i) Zenbait erakunderi baimena ematea derrigorrezko ziurtagiriekin lotutako ikuskapenak eta azterketak egiteko, osorik edo zati

batean, baita 11. artikuluko 2. paragrafoak adierazten dituen arauak betetzen direla ebaluatzeak ere, eta dagozkion ziurtagiriak egin edo berritzea, hori egin behar denean.

ii) Zenbait erakunderen esku uztea, guztiz edo zati batean, i) tartekian adierazitako ikuskapenak eta azterketak.

Onetsitako erakundeen esku bakarrik utz dezake zeregin hori.

Salbuespen-ziurtagiriak administrazio eskumendunak onartuko ditu lehen aldiz, beti.

Dena den, kargaontzirako segurtasun erradioelektrikoko ziurtagiria bada, lan horiek administrazio eskumendun batek onetsiriko erakunde pribatuaren esku utzi ahal izango dira, erakunde horrek nahikoa esperientzia eta langile kualifikatu badu administrazio haren izenean segurtasun-ebaluazio bereziak egiteko, irratikomunikazioaren alorrean.

3. Artikulu honek ez du arautzen itsas tresna berezien ziurtatzea.

4. artikulua

1. 3. artikuluko 2. paragrafoa aplikatzerakoan, estatu kideek, printzipioz, onetsiriko erakunde bati ezin izango diote jarduera hori egiteko baimena ukatu, nahiz eta kontuan eduki behar den artikuluko honetako 2. paragrafoan eta 5 eta 9. artikuluan xedatutakoa. Dena den, dituen beharrak kontuan hartuta, baimen-kopurua mugatu dezake estatu kideak, arrazoi objektibo eta gardenetan oinarrituta.

Estatu kide batek eskatuta, Batzordeak egokiak diren neurriak hartuko ditu, 6. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoari jarraituz, bermatzeko behar bezala aplikatzen dela, bai paragrafo honetako lehen lerrokada, baimena ukatzeari dagozkionez, bai eta 8. artikulua ere, baimena eten edo kentzeari dagozkionez.

2. Estatu kideek, hirugarren herrialde batean ezarritako onetsiriko erakunde batek 3. artikuluan adierazitako eginkizunak, osorik edo zati batean, egin ditzan onartzeko, hirugarren herrialde horri eskatu diezaioke Erkidegoan ezarritako onetsiriko erakundeak onetsi ditzan.

Gainera, Europar Batasunak hau eska diezaioke onetsiriko erakundea ezarrita dagoen hirugarren herrialde horri: Erkidegoan ezarritako onetsiriko erakundeei haiei ematen dieten tratu berbera eman diezaiei.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. artikulua

1. 3. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki erabaki bat hartzen duten estatu kideek, «lan-harreman» bat ezarriko dute administrazio eskudunaren eta haren izenean jarduten duten erakundearen artean.

2. Lan-harremana honek arautuko du: idatzizko akordio formal ez diskriminatzaile batek edo horren baliokide den akordio juridiko batek. Erakundeek bere egindako funtzio eta betebeharrak espezifikoki ezarriko ditu akordioak, eta, gutxienez alderdi hauek adieraziko ditu:

a) IMOren A.739(18) Ebazpenaren II. eranskinean ezarritako xedapenak (administrazioaren izenean jarduten duten erakundeak baimentzeko jarraibideak), eta, aldi berean, IMOren MSC 710 Zirkularraren eta MEPC 307 Zirkularraren eranskinean, gehigarrietan eta erantsiriko agirietan oinarrituko da (administrazioaren izenean jarduten duten onetsiriko erakundeak baimentzeko araubide-ereduari buruzkoak dira);

b) finantza-erantzukizuna mugatzeko xedapen hauek:

i) Epaitegi batek erabakitzen bada, behin betiko epai irmo baten bidez, edo auzi baten arbitrajeko prozedura baten barruan konponbide gisa ezartzen bada, administrazioa itsas istripu baten erantzule dela eta kaltetuei kalte-ordaina eman behar diela kalte materialengatik, gorputz-kalteengatik edo heriotzagatik eta jurisdikzio-organo horretan frogatuta geratu bada kalte horiek onetsiriko erakunde horri, haren zerbitzuei, langileei, agentei edo haren izenean jarduten duten pertsonen egotz dakiekeen ekintza edo ez-egite zabar larri edo dolozkoak eragin duela, administrazioak eskubidea izango du onetsiriko erakunde horrek kalte-ordaina eman diezaion, harik eta kalte material, gorputz-kalte edo heriotza onetsiriko erakunde horren kausaz sortu bada, epaitegiaren iritziz,

ii) Epaitegi batek erabakitzen bada, behin betiko epai irmo baten bidez, edo auzi baten arbitrajeko prozedura baten barruan konponbide gisa ezartzen bada, administrazioa itsas istripu baten erantzule dela eta kaltetuei kalte-ordaina eman behar diela gorputz-kalteengatik edo heriotzagatik, eta jurisdikzio-organo horretan frogatuta geratu bada kalte horiek onetsiriko erakunde horri, haren zerbitzuei, langileei, agentei edo haren izenean jarduten duten pertsonen egotz dakiekeen ekintza edo ez-egite zabar edo ausartegiak eragin dutela, administrazioak eskubidea izango du onetsiriko erakunde horrek kalte-ordaina eman diezaion, harik eta gorputz-kalte edo heriotza onetsiriko erakunde horrek sortu baditu, epaitegiaren iritziz. Estatu kideek mugatu ahal izango dute onetsiriko erakunde horiek ordaindu beharreko gehieneko kopurua, baina kopuru horrek ezin izango du 4 milioi eurotik beherakoa izan,

iii) Epaitegi batek erabakitzen bada, behin betiko epai irmo baten bidez, edo auzi baten arbitrajeko prozedura baten barruan

konponbide gisa ezartzen bada, administrazioa itsas istripu baten erantzule dela eta kaltetuei kalte-ordaina eman behar diela kalte materialengatik, eta jurisdikzio-organo horretan frogatuta geratu bada kalte horiek onetsiriko erakunde horri, haren zerbitzuei, langileei, agentei edo haren izenean jarduten duten pertsonen egotz dakiekeen ekintza edo ez-egite zabar edo ausartegiak eragin dutela, administrazioak eskubidea izango du onetsiriko erakunde horrek kalte-ordaina eman diezaion, harik eta kalte materialak onetsiriko erakunde horrek sortu baditu, epaitegiaren iritziz. Estatu kideek mugatu ahal izango dute onetsiriko erakunde horiek ordaindu beharreko gehieneko kopurua, baina kopuru horrek ezin izango du 2 milioi eurotik beherakoa izan,

c) Administrazioak edo hark izendatutako kanpoko erakunde inpartzial batek egin beharreko aldi-aldi auditoriarako xedapenak; hots, erakundeak administrazioaren izenean egindako jardunaren auditoriarakoak, 9. artikuluko 1. paragrafoak ezarritakoa betetzeko;

d) itsasontziak, ausaz, zehatz-mehatz ikuskatzeko aukera.

e) sailkatutako flotari, hartan egindako aldaketei, etetei eta klase-kentzei buruzko funtsezko informazioa derrigorrez jakinaraztea arautzeko xedapenak.

3. Akordioak edo erregimen juridiko baliokideak betekizun moduan ezarri ahal izango du onetsiriko erakundeak tokiko ordezkartza edukitzea 3. artikuluan adierazitako eginkizunetan ordezkartzen duen estatu kidearen lurraldean. Estatu kidearen legedia betetzen duten izaera juridikoko tokiko ordezkartzeak, estatu horretako epaitegien jurisdikziopean daudenean, beteko dute betekizun hori.

4. Artikulu honi jarraiki ezarritako harreman funtzionala zer-nolakoa den adierazten duen informazio zehatza emango dio Estatu kide bakoitzak Batzordeari. Batzordeak, ondoren, horren berri emango die gainerako estatu kideei.

6. artikulua

1. Batzordeak Itsas Segurtasunaren eta Itsasontziek eragindako Kutsaduraren Prebentziorako Komitearen laguntza izango du (hemendik aurrera «COSS komitea» deituko diogu). Komite hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2099/2002 (EE) Erregelamenduak ⁽¹⁾ ezarritakoa betez sortu da.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan adierazitako epea hiru hilabetekoa da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

¹ L 324 EO, 2002.11.29koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

7. artikulua

1. Zuzentarau hau aldatu ahal izango da, aplikazio-eremua zabaldu gabe, honetarako:

- a) Zuzentarau honen ondorioetarako, dagozkien hitzarmen, protokolo, kode eta nazioarteko ebazpenen gerorako aldaketak sartzeko, indarrean sartu badira (2. artikuluko d) idatz-zatian, 3. artikuluko 1. paragrafoan eta 5. artikuluko 2. paragrafoan adierazita daude).
- b) 5. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatiko ii) eta iii) tartekietan adierazitako kopuruak aldatzeko.

Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak 6. artikuluko 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betetz hartu behar dira.

2. 2. artikuluko d) idatz-zatiak aipatzen dituen nazioarteko hitzarmenetako tresna edo protokolo berriak onartzen direnean, Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, tresna edo protokolo berri horiek berresteko moduak zehaztuko ditu, kontuan hartuta estatu kideen prozedura parlamentarioak eta IMOren egoki diren prozedurak. Eta zainduko du estatu kideek modu uniformearen eta aldi berean aplikatzen dituztela.

2. artikuluko d) idatz-zatian eta 5. artikuluan adierazitako nazioarteko tresnen zuzenketak Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo utzi ahal izango dira, 2099/2002 (CE) Erregelamenduko 5. artikulua aplikatuz.

8. artikulua

391/2009 (EE) Erregelamenduko I. eranskinean zehaztutako gutxieneko irizpideak kontuan hartu behar badira ere, estatu kide batek uste badu onetsiriko erakunde batek ezin duela bere izenean 3. artikuluan adierazitako eginkizunak egiteko baimena izaten jarraitu, aukera izango du baimen hori eteteko edo kentzeko. Horrelakoetan, estatu kideak erabakia berehala jakinaraziko die Batzordeari eta gainerako estatu kideei, eta erabaki hori hartzeko arrazoiak adieraziko ditu.

9. artikulua

1. Estatu kideek zainduko dute 3. artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoa betetz beren izenean jarduten duten onetsiriko erakundeek benetan betetzen dituztela artikuluko horretan ezarritako eginkizunak, eta administrazio eskuduntzat egoki den moduan betetzen dituztela.

2. 1. paragrafoak adierazitako eginkizuna betetzeko, estatu kideek, bi urtetik behin gutxienez, eskuordetutako onetsiriko erakundeak gainbegiratu dituzte, eta gainerako estatu kideei eta Batzordeari gainbegiratze horien emaitzei buruzko txostena igorriko diete,

2009/15/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 131, 2009/5/28koa)

gainbegiratzea egiten den urtearen hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.

10. artikulua

Estatu kideek, portua arautzen duen estatua diren heinean, ikuskatzeak egiteko duten eskubidea eta betebeharra betetz, Batzordeari, gainerako estatu kideei eta dagokion banderako estatuari jakinaraziko diete honako hauetakoren batekin topo egin dutela: banderako estatu baten izenean jarduten duen onetsiriko erakunde batek derrigorrezko ziurtagiri baliokoa eman diola nazioarteko dagozkion baldintzak betetzen ez dituen itsasontziren bati; edo baliozko sailkapen-ziurtagiria duen itsasontziren batek ez-betetzerean bat egin duela ziurtagiri horrek babesten duen elementuren bati dagokionez. Artikulu honen ondorioetarako, segurtasunerako eta ingurumenerako mehatxu larria dakarten itsasontzien kasuen berri soilik emango da, bai eta onetsiriko erakundeen jarrera bereziki zabarra dela aditzera ematen duen kasuen berri ere. Hasierako ikuskapena egiten den unean jakinaraziko zaio kontua dagokion onetsiriko erakundeari, egokiak diren neurriak hartu ahal izan ditzan berehala.

11. artikulua

1. Estatu kideak bermatuko du bere bandera daraman itsasontzi oro diseinatu, eraiki, ekipatu eta mantentzerakoan bete egin direla kroskoari, makinei eta instalazio elektrikoei eta kontrol-instalazioei buruz onetsiriko erakunde batek ezarritako arauak eta prozedurak.

2. Estatu kide batek baldintza hauek betetzen baditu soilik erabaki dezake onetsiriko erakunde baten arauen eta prozeduren parekotzat jotzen dituen arauak erabiltzea: Batzordeari eta gainerako kideei berehala jakinarazi behar die, 98/34/CE Zuzentarauko prozedurari jarraituz; arau eta prozedura horiek ezin izango dute beste estatu kide batek edo Batzordeak zalantzan jarritakoak izan, eta, halaber, ezin izango dira ez-baliokidetzat jotakoak izan Zuzentarau honetako 6. artikuluko 2. paragrafoak adierazitako erregelamentazio-prozeduraren arabera.

3. Estatu kideek, arauak eta prozedurak egiteko lanean, beraiek baimendutako onetsiriko erakundeekin elkarlanean jardungo dute. Kontsultak egingo dituzte erakunde horiek, nazioarteko hitzarmenen interpretazio bera lor dadin.

12. artikulua

Bi urtetik behin, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Batzordeari jakinaraziko die Zuzentarau hau aplikatzean zer-nolako aurrerapenak egin dituzten estatu kideek.

13. artikulua

1. Estatu kideek 2011ko ekainaren 17a baino lehen jarriko dituzte indarrean Zuzentarau hau betetzeko lege-, arau- eta administrazio-xedapenak. Batzordeari berehala emango diote xedapen horiek biltzen dituen testuaren berri.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estatu kideek xedapen horiek ezartzen dituztenean, xedapen horiek Zuzentarau honi buruzko erreferentzia egingo dute, edo erreferentzia horrekin batera adieraziko dira argitalpen ofizialean. Estatu kideek, halaber, adierazi egingo dute egindako indarreko lege-xedapenetan, erregelamenduzko xedapenetan eta administrazio-xedapenetan Zuzentarau honek indargabetzen dituen zuzentarauei buruzko erreferentziak Zuzentarau honi egindakoak direla. Estatu kideek ezarriko dituzte erreferentziak egiteko moduak, bai eta aipamena nola egingo den ere.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote Zuzentarau honek araututako eremuan onartzen diren barne-zuzenbideko xedapen nagusien testuak.

14. artikulua

Zuzentarau honek, 2009ko ekainaren 17tik aurrera, 54/97/EE Zuzentaraua –I. eranskineko A zatian adierazitako ekintzen bidez aldatua– indargabetuko du. Nolanahi ere, estatu kideek bete egin beharko dute zuzentarauek estatuko zuzenbidean jasotzeko epeei dagokienez dauzkaten betebeharrak (I. eranskineko B zatian adierazita daude).

Indargabeturiko zuzentarauei egindako erreferentziak zuzentarau honi egindakotzat joko dira, II. eranskinean jasotako korrespondentzia-taulari jarraiki.

15. artikulua

Zuzentarau hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit eguneko epean sartuko da indarrean.

16. artikulua

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean,
Presidentea
P. NECAS

ANEXO I

PARTE A**Directiva derogada con sus modificaciones sucesivas**

(a que se refiere el artículo 14)

Directiva 94/57/CE del Consejo	DO L 319 de 12.12.1994, p. 20
Directiva 97/58/CE de la Comisión	DO L 274 de 7.10.1997, p. 8
Directiva 2001/105/CE del Parlamento Europeo y del Consejo	DO L 19 de 22.1.2002, p. 9
Directiva 2002/84/CE del Parlamento Europeo y del Consejo	DO L 324 de 29.11.2002, p. 53

PARTE B**Plazos de transposición al Derecho interno**

(a que se refiere el artículo 14)

Directiva	Plazo de transposición
94/57/CE	31 de diciembre de 1995
97/58/CE	30 de septiembre de 1998
2001/105/CE	22 de julio de 2003
2002/84/CE	23 de noviembre de 2003

ANEXO II

Tabla de correspondencias

Directiva 94/57/CE	Presente Directiva	Reglamento (CE) nº 391/2009
Artículo 1	Artículo 1	Artículo 1
Artículo 2, letra a)	Artículo 2, letra a)	Artículo 2, letra a)
Artículo 2, letra b)	Artículo 2, letra b)	–
Artículo 2, letra c)	Artículo 2, letra c)	–
Artículo 2, letra d)	Artículo 2, letra d)	Artículo 2, letra b)
Artículo 2, letra e)	Artículo 2, letra e)	Artículo 2, letra c)
–	Artículo 2, letra f)	Artículo 2, letra d)
Artículo 2, letra f)	Artículo 2, letra g)	Artículo 2, letra e)
Artículo 2, letra g)	Artículo 2, letra h)	Artículo 2, letra f)
Artículo 2, letra h)	Artículo 2, letra i)	Artículo 2, letra g)
Artículo 2, letra i)	Artículo 2, letra k)	Artículo 2, letra i)
–	Artículo 2, letra j)	Artículo 2, letra h)
Artículo 2, letra j)	Artículo 2, letra l)	–
Artículo 2, letra k)	–	Artículo 2, letra j)
Artículo 3	Artículo 3	–
Artículo 4, apartado 1, primera frase	–	Artículo 3, apartado 1
Artículo 4, apartado 1, segunda frase	–	Artículo 3, apartado 2
Artículo 4, apartado 1, tercera frase	–	–
Artículo 4, apartado 1, cuarta frase	–	Artículo 4, apartado 1
–	–	Artículo 3, apartado 3
–	–	Artículo 4, apartados 2, 3 y 4
–	–	Artículo 5
–	–	Artículo 6
–	–	Artículo 7
Artículo 5, apartado 1	Artículo 4, apartado 1	–
Artículo 5, apartado 3	Artículo 4, apartado 2	–
Artículo 6, apartados 1, 2, 3 y 4	Artículo 5, apartados 1, 2, 3 y 4	–
Artículo 6, apartado 5	–	–
Artículo 7	Artículo 6	Artículo 12
Artículo 8, apartado 1, primer guión	Artículo 7, apartado 1, párrafo primero, letra a)	–
Artículo 8, apartado 1, segundo guión	–	Artículo 13, apartado 1
Artículo 8, apartado 1, tercer guión	Artículo 7, apartado 1, párrafo primero, letra b)	–
–	Artículo 7, apartado 1, párrafo segundo	Artículo 13, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 8, apartado 2	Artículo 7, apartado 2	–
Artículo 8, apartado 2, párrafo segundo	–	Artículo 13, apartado 2
Artículo 9, apartado 1	–	–
Artículo 9, apartado 2	–	–
Artículo 10, apartado 1, frase introductoria	Artículo 8	–
Artículo 10, apartado 1, letras a), b) y c), y apartados 2, 3 y 4	–	–
Artículo 11, apartados 1 y 2	Artículo 9, apartados 1 y 2	–

Directiva 94/57/CE	Presente Directiva	Reglamento (CE) n° 391/2009
Artículo 11, apartados 3 y 4	–	Artículo 8, apartados 1 y 2
Artículo 12	Artículo 10	–
Artículo 13	–	–
Artículo 14	Artículo 11, apartados 1 y 2	–
–	Artículo 11, apartado 3	–
–	Artículo 12	–
–	–	Artículo 9
Artículo 15, apartado 1	–	–
–	–	Artículo 10, apartados 1 y 2
Artículo 15, apartado 2	–	Artículo 10, apartado 3
Artículo 15, apartado 3	–	Artículo 10, apartado 4
Artículo 15, apartado 4	–	Artículo 10, apartado 5
Artículo 15, apartado 5	–	Artículo 10, apartado 6, párrafos primero, segundo, tercero y quinto
–	–	Artículo 10, apartado 6, párrafo cuarto
Artículo 16	Artículo 13	–
Artículo 17	Artículo 16	–
–	Artículo 14	–
–	Artículo 15	–
–	–	Artículo 11
–	–	Artículo 14
–	–	Artículo 15
–	–	Artículo 16
–	–	Artículo 17
–	–	Artículo 18
–	–	Artículo 19
Anexo	–	Anexo I
–	Anexo I	–
–	Anexo II	Anexo II